

8/2020 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
URRIAREN 13an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

D. Ander Oroz Casimiro, Alcalde de Ansoáin

KONTZEJUKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea

Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea

Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea

Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea

Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea

Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea

David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.

Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.

Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.

Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.

Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea

Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua

Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua

Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria

Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria

Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea

Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea

Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea

Yolanda González García and., Vianako alkatea.

David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeiko urriaren hamahiruan, goizeko hamabietan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1.- Irailaren 8ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
- 2.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3.- Garapenerako lankidetzaren arloko jarduketak.
- 4.- Azaroko Batzorde Betearazlearen bilkura beste egun batera aldatzea.
- 5.- Lehendakariaren informazioa.
- 6.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Irailaren 8ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharririk duen haren inguruan. Oharririk ez dagoenez,

ERABAKI DA:

2020ko irailaren 8an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.

Lehendakariak egindako Batzorde eta Kontseiluen berri eman du. Era berean, osasun krisiarekin lotuta deitu dituzten Batzorde eta bilera zehatzen berri eman du. Federazioa horietan guztietan egoten saiatu da.

- **Nafarroako Bideozaintzarako Bermeen Batzordea**, (2020/09/17). Polizien uniformeetan kamerak jartzeko aukera hizpide izan zuten eta kamerak baimentzeko beharrezko baldintzen inguruan aritu ziren.
- **Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua**, (2020/10/02). Nafarroa Suspertu Planaren berri eman zuten.
- **Nafarroako Taxien Kontseilua**, (2020/10/02). Kontseilu horretan ordezkari dagoenak jakitera eman zuenez, taxi-lizentzia eskaeraren bat egon da, Muru Artederretako udalak taxien esparruan sartzeko eskaera egin du eta Nafarroako Gobernuak laguntzarekin eskaeraren araberako beste garraio mota batzuk proba moduan abiatzeko eskatu zen.
- **NILSAko Administrazio Kontseilua**, (2020/10/05). Zenbait obren etetearen eta administrazio prozeduratan osasun krisiak izandako ondorioen berri eman zuten eta onetsitako jarduketaren programan aldaketa batzuk onetsi ziren.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua**, (2020/10/05). Zeuden erreklamazioak ebatzi ziren.
- **Nafarroako Ongizatearen Kontseilua**, (2020/10/06). Gizarte zerbitzuen esparruan lotura fisiko eta farmakologikoen erabilera arautzen duen Foru Dekretuaren aldaketaren berri eman zuten eta 2030 Agenda eta hazkunde ekonomikoari, sozialari eta ingurumenekoari batera heltzeko helburua hizpide izan zituzten. Halaber, plan estrategikoei lehenengo berrikuspena egitea hizpide izan zuten Garapen Iraunkorreko hamazazpi Helburuekin bat datozen ikusteko.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua**, (2020/10/07). Eskolatzeko Batzordea ere bildu zen ohiko epetik kanpo jasotako ikastetxe aldaketa batzuk tramitatzeko.
- **Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (EIN)**, (2020/10/07). Populazioaren datu ofizialen proposamenaren berri eman zuten.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA.- Garapenerako lankidetzaren arloko jarduketak.

Lehendakariak hitza eman dio Juan Jesús Echaide Lankidetzarako Funtsaren teknikari arduradunari honek azal dezan Funtsa zer den, egiten diren jarduketak eta Batzorde Betearazlearen iritzia jaso beharko duen proposamena.

2019-2020 epealdirako garapenerako lankidetzan proposatzen diren jarduketei dagokionez, teknikariak lehendabizi urteko deialdiaren ebazpen-proposamena azaldu du aurkeztutako proiektuen errebasoa eginez eta hautatutako proiektuak azalduz. Deialdiarekin batera igorritako proposamenean errore bat dagoela jakinarazi du eta, azkenean, zortzi proiektu diruz lagunduko direla. Zazpi proiektu puntu gehien lortu dutenak izan direlako eta, zortzigarrena, Asociación de Trabajadores y Técnicos sin Fronteras (ATTSF) entitateak aurkeztutakoa, Saharar Ordezkaritzarekin izenpetutako hitzarmenaren barruan kokatzen delako.

Teknikariak azaldu duen proposamen horrek aurreikusten duenaren arabera, lankidetzarako funtsak toki entitateen diru-sarrera berriak jasoz gero, puntuen arabera zerrendako hurrengo proiektuak hautatuko dira, eta 2021eko lehenengo hiruhilekoan deialdi berria egingo da.

Era berean, teknikariak proposatzen den bigarren jarduketa azaldu du: 2021ean, orain arteko baldintza berdintsuekin, urteko hitzarmen berria izenpetzea Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin.

Horretaz gain, 2020-2022 epealdirako Hiru Urteko Planaren proiektu berri bat abiatuko dela jakitera eman du.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

ERABAKI DA:

Lankidetzari dagozkion 2020-2021 epealdirako proposatutako jarduketak onestea ondorengo baldintzetan:

LEHENBIZIKOA. Urteko deialdiari dagokionez, puntu gehien lortu dituzten 7 proiektuak finantzatzea baita Asociación de Trabajadores y Técnicos sin Fronteras entitateak aurkeztutakoa ere Saharar ordezkaritzarekin izenpetutako hitzarmenaren barruan. Toki entitateen diru-sarrera berriak jasoz gero, finantzaketa handitzea proiektu bati edo gehiagori lortutako puntuen arabera ordenean hautatuz eta 2021eko lehen hiruhilekoan urteko deialdi berria egitea.

- * "Herritarren osasuna hobetzeko dimentsio anitzeko programa Gakenke barrutiko hiru sektoretan: Nemba, Karambo eta Kumubugan."
GKEa: Medicus Mundi Nafarroa-Aragoi-Madril
Finantzazioa: 24.000,00
- * "Mbanza-Ngunguko Loma auzoko "Mwenze a Velela" lehen eta bigarren hezkuntzako lau ikasgelatarako altzariak."
GKEa: Fundación Siempre Adelante
Finantzazioa: 10.000,00
- * "Saneamendu egokirako eskubidea ahalbidetzen Kikonkan. 2. FASEA."
GKEa: Itaka Escolapios Fundazioa
Finantzazioa: 20.000,00
- * "Sintchan Batcha udalerriko biztanleek ura eta saneamendua edukitzeko duten giza eskubidea asebetetzen laguntzea, Contuboel sektorean, Bafatá eskualdean, Ginea Bissau."
GKEa: Asamblea de cooperación por la paz Navarra/Bakerako lankidetzeta batzarrea Nafarroa (ACPP/BLB Navarra)
Finantzazioa: 24.000,00
- * "229 haurren hezkuntza kalitatea hobetzea Garin Malam herrixkan."
GKEa: Asociación Infancia sin Fronteras - ISF Navarra
Finantzazioa: 22.098,01
- * "Emakume nekazari indigena antolatuak ahalduntzen laguntzea Bolivian."
GKEa: Mundubat fundazioa
Finantzazioa: 23.933,53
- * "Haurren ikasteko eskubidea hobetzea ura eta saneamendua eskuragarri jarri eta higiena sustatuz Burkina Fasoko ekialdeko eskualdeko landa-eskoletan."
GKEa: UNICEF – Nafarroako Batzordea
Finantzazioa: 24.000,00
- * "Saharar errefuxiatuak urez hornitzeko logistika"
GKEa: Asociación de Trabajadores y Técnicos sin Fronteras (ATTSF)
Finantzazioa: 24.000,00

BIGARRENA. 2021ean urteko hitzarmen berria izenpetzea, baldintza beretsuekin, Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin.

4. PUNTUA.- Azaroko batzorde betearazlearen bilkura dataz aldatzea.

Proposatu da Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura dataz aldatzea, bertan abenduko Batzarreko deialdia eta gai-zerrenda onesteko; izan ere, abenduaren 11rako aurreikusten baita batzarra.

Proposatu da bilkura azaroaren 17an egitea, azaroaren 10ean egin beharrean.

Era berean, jakinarazi da Batzarra abenduaren 11rako aurreikusia dagoela eta egungo osasun krisia dela eta, bilkura nola egin (aurrez aurre ala telematikoki) aztertzen ari dela.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, adierazi du ahal izanez gero eta legezkoa bada ez duela arazorik ikusten Batzarra era telematikoan egiteko.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, esan du hurrengo Batzorde Betearazlean Batzarra egiteko modua erabaki beharko dela dauden aukerak ikusita.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, galdetu du ea nahitaezkoa den Batzarra abenduan egitea. Hala ez bada, egoera hobetzen den arte atzeratu ahalko litzateke.

Idazkari Nagusiak azaldu du, aplikatzekoa den Elkarteen Legeak eta NUKFren Estatutuek ezartzen dutenaren arabera, gutxienez, urtean behin batzar bat egin behar dela eta Batzarrak 2019ko kontuak eta 2021erako aurrekontua onetsi behar dituela.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, adierazi du ez-presentziala eginez gero, aldez aurretik proposamenak aurkeztu ahal izateko aukera eman beharko litzatekeela. Fabo jaunak galde-eskeen kasuan ere gauza bera egin beharko litzatekeela uste du.

ERABAKI DA:

Azaroko Batzorde Betearazlearen bilkura egunez aldatzea; 10ean egin beharrean, 17an egingo da. Halaber, Batzar Orokorra egiteko aurreikusitakoen berri jasotzea; hurrengo Batzorde Betearazlean zehaztuko dira aurreikuspen horiek.

5. PUNTUA. - Beste gai batzuk.

Gai-zerrendako puntuak amaituta, lehendakariak jakinarazi du Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, onesteko proposamen bat aurkeztu duela gai-zerrendatik kanpo dagoen gai baten inguruan. Zehazki, toki entitateek Europako funtsetan duten parte-hartzearekin lotutako proposamena da eta, dagoeneko, Batzorde Betearazlearen kide guztiei posta elektronikoa bidez helarazi zaie.

Oroz jaunak aurkeztutako proposamena azaldu du. Adierazi duenez, datorren azaroaren 6an, gai hori Parlamentuan jorratuko dute eta uste du toki entitateek funts horietan parte-hartzeko aukera defendatu behar dutela eta, horretarako, lantalde bat sortu beharra dagoela.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, adierazi du posta elektronikoa bidez igorri duela Oroz jaunak aurkeztutako proposamenari eginko ordezkatzeko zuzenketa bat honakoa adierazita: "*Honako Federazio honen lehendakariaren bidez Nafarroako Gobernuarekin elkarrizketa sustatzea toki entitateek Europako Funtsetan izan dezaketenez balizko parte-hartzea zehazteko*". Izan ere, uste baitu Nafarroako Gobernuarekin lantaldea sortu baino lehen, toki entitateek funts horietan izanzen duten balizko parte-hartzeari buruzko informazioa lortu behar dela.

Proposamena zehazteko baldintzen inguruko eztabaida sortu da.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, adierazi du bere proposamenak Nafarroara iristen diren funtsetan parte-hartze eraginkorra edukitzea duela oinarri. Esan du estatu mailan FEMPEk, jada, Europako funtsetan parte-hartze zuzena aldarrikatu duela. Aurkeztutako proposamenak ordea, jarduketa autonomikoa planteatzen du.

Idazkari nagusiak proposamena tramitatzeari buruz adierazi du gai-zerrendan ez dagoen gai baten ingurukoa denez, Estatutuen 41. artikularekin bat, proposamena tramitatzeako premia bozkatu beharra dagoela eta Batzorde Betearazlearen gehiengo osoa behar duela.

Horrenbestez, proposamenaren premia bozkatu da eta aho batez onetsi.

Ondoren, Maya jaunaren proposamena ordezkatzeko zuzenketa gisa bozkatzeko proposatu da.

Gonzalez andreak, Vianako alkateak, uste du bi proposamenak batu ahal direla berezirik bozkatu beharrik gabe. Oroz jaunaren ustez hori ez da posible.

Maya jaunak uste du ez dela bere proposamena ongi ulertu. Bertan, proposatzen dena zera da lehenengo Gobernuarekin hitz egitea eta ondoren batzordea sortzea. Hala ere, esan du gehiengo ados badago, ez duela eragozpenik bozketa egiteko.

Lehendakariak esan du Gobernuarekin hitz eginen duela lehenago.

Ondoren, aurkeztutako proposamena bozkatu da.

Aho batez,

ERABAKI DA:

Honako erabaki bateratu hau onestea:

“Udalak herritarrekiko hurbilen dauden erakundeak izaki, egungo krisi sozial, ekonomiko, ekologiko eta sanitarioan zeregin garrantzitsua dute. Herritarrek behar sozial eta ekonomiko handiak dituzte eta datozen urteetan gure herriek eta udalerriek erronka handiei aurre egin beharko diete. Inguruabar horretan, toki entitateen finantza-nahikotasuna defendatzeaz gain, diru-sarrera iturri berriak aztertzea eta entitateen eskura jartzea dagokigu aurrera egin ahal izateko. Diru-sarrera iturri berri horien artean, Europar Batasunak emanen dituen finantzazio ildoak eta dirulaguntzak daude. Egun, horien inguruko informazioa eskasa bada ere, datozen urteetan funts horiek giltzarri izan daitezke toki entitateen aurrekontuetan eta toki esparruko proiektuen finantzaketan. Horrenbestez, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak honakoa erabaki du:

- 1.- COVID-19ak sortutako krisia dela eta, toki entitateek lehentasuna eduki behar dute Europako funtsak jasotzeko proiektuak finantzatu ahal izateko, eta funtsok proiektu horiek gauzatzeko behar adinakoak izan behar dira.
- 2.- Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu toki entitateekin hitz egiten hasteko Europako funtsak jasotzeko dagokionez entitate horiek izanen duten parte-hartzea zehazteko, horretarako, NUKFren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lan-batzorde bat eratzuz.
- 3.- Honako erabakia Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentua osatzen duten talde parlamentarioei helaraztea.”

6. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Irailaren 9an Gizarte Langileen Elkargo Ofizialaren ordezkariekin izandako bilera. Araudi, proiektu berriak onesteko garaiak kontuan izatea eskatu ziguten. Halaber, egun oinarrizko lantaldetan ez dauden eta giltzarri diren teknikari figuren gabezia aintzat hartzea eskatu zuten eta entitate batetik bestera soldata ezberdintasun handiak daudela jakinarazi zuten. Horretaz gain, oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzeko sistema berria sendotzeko lan egin behar dela adierazi zuten eta

mendekotasuna ez duten pertsonentzako etxez etxeko arreta zerbitzua zabaltzea komeni dela prebentzio gisa. Bestalde, gizarte zerbitzuetako programak berrikusteko beharra adierazi zuten, eta lan komunitarioaren eta informazio sistema bakar bat ezartzearen garrantzia azpimarratu zuten. NUKFn gizarte zerbitzuei buruzko berriazko batzorde bat sortzea komeniko litzatekeela adierazi zuten.

- Nafarroako Ehiza Federazioarekin izandako bilera. Bertan, Covida dela eta ehizatzeko ezintasunak sortu dituen kalteen inguruko kezka adierazi ziguten eta laguntza eskatu Nafarroako Gobernuari eskatzeko ehiza barrutiak esleitzeko pleguetan ehiztariak federatuak egoteko eska dezan.
- Toki Administrazioaren Zuzendari Nagusiarekin aldi berean izandako bilerak honakoak jorrazteko: Ikastetxeen garbiketa zerbitzu gehigarriak kofinantzatzeko beharra, bereziki, eskola kontzentrazioen kasuan; musika eskolentzako protokoloak egiteko eta postu hutsak betetzeko zerrenda bateratuak egiteko eskaera; merkatu txikiak egiteko guneak handitzeko beharra; osasun arloko murrizketetatik eratorritako arau-haustekak zehatzeko eskumenari buruzko zalantzak; administrazio elektronikoa ezartzeko talde bat abiatzeko eskaera. Horretaz gain, argibideak eskatu ziren gastu-arauaren aplikazioari eta aurrekontuen egonkortasunari buruz udal aurrekontuak egiteari begira. Izandako bileretako batean, murrizketen barruan aisialdirako eta ekitaldietarako lokalen alokairua arautzeko eskatu zen. Toki Administrazioaren Departamentuak jakitera eman zuen toki entitate batzuekin kontabilitatea eramateko sinaturiko hitzarmenak amaitu direla eta transferentzia arrunten funtsa %1,3 haziko dela aurreikusten dutela. Halaber, zirkulazio-zergaren eguneratzearen berri eman zuen.
- Irailaren 14an Trantsizioa Kudeatzeko Adituen Batzordearekin izandako bilera estatu mailan egoera aztertzeko.
- Bizikidetzaren Plan Estrategikoa egiteko osatutako lantaldeak eginiko bi bilkura. Egindako inkestak berri eman zuten, aurreikusten dituzten datak aditzera eman zituzten eta toki entitateei igorriko zaien fitxaren berri eman zuten.
- Irailaren 29an ezgaitasuna duten emakumeen Amudinsa elkartearekin izandako bilera. Elkartearen helburu nagusia landa ingurunean ezgaitasuna lantzea da. Hainbat proiektu dituzte; besteak beste, beste proiektuetarako plataforma izatea eta besarkadaren telefonoa sortzea pertsonak artatzeko. Azkeneko hori enplegurako gune gisa erabiltzen ari dira.
- Urriaren 6an #OkupasMotorizados herri-ekimenaren ordezkariarekin izandako bilera aparkatzeko txartelak egitearen inguruan. Udal bakoitzak bere ordenantza izan beharrez, Nafarroa osorako araudi bakarria onestea komenigarria litzatekeela adierazi zuten ezgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatuak dauden lekuen iruzurrezko okupazioa ekiditeko.
- Urriaren 8an Aspace Nafarroa entitatearekin izandako bilera "Biointegra, Innovación en el Pirineo Navarro" proiektua aurkezteko.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

7. PUNTUA.- Galde-eskeak

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, honakoak galdetu ditu: ea sei pertsonen muga osoko bilkurei eragiten dien; legealdi hasieran sortu zen polizien lantaldearen jarraipena eskatu ote den eta ea Bizikidetzaren Planari buruz egindako fitxak plan horretarako sortutako lantaldeko kideei zuzenduak dauden edota toki entitate guztientzat diren.

Idazkari nagusiak lehenengo galderari erantzun dio. Adierazi duenez, sei pertsonen muga esparru pribatuari eta aisialdiari eragiten dio eta, hortaz, ez du osoko bilkuretan eraginik; aplikatzekoa da ordea, edukierari dagokion muga.

Fitxei buruzko galderaren inguruan lehendakariak adierazi du Bake eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusia izanen dela fitxak nori bidali erabakiko duena.

Bestalde, Toki Inbertsioen Planari dagokionean adierazi du aurreratu diotenaren arabera ez dela 2021erako planik egongo.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, onetsitako neurri berrien inguruko zalantzak galdetu ditu: antzerki ikastaroetan eta antzekoetan aplikatu beharreko mugak zeintzuk diren eta ea “kale zurruta” debekaturik jarraitzen duen. Lehenengo zalantzaren inguruan adierazi diote muga edukieraren %30 dela. Kaleko zurrutari dagokionean, debekaturik dagoela baieztu diote.

Esparza jaunak, Casedako alkateak, esan du udal txikiek SGAErekin izenpetutako hitzarmenarekin bat, gutxieneko kuota bat ordaintzen dutela aldez aurretik urtean zehar egiten dituzten ikuskizunengatik. Osasun krisia dela eta, ikuskizun gehienak bertan behera gelditu direnez, eskatu du Federazioak dagozkion gestioak egin ditzan SGAEk kuota horiek itzul ditzan.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, galdetu du ea toki entitatearen bat gehiago dagoen oraindik ere libreki erabakitzeko funtsak jaso ez dituen, eta eskatu du horiek jasotzeko arazoren bat ote dagoen galdetzeko. Halaber, eskatu du etxeko arreta zerbitzuei eskatzea zerbitzu horren langileei ere PCR probak egitea.

Ferrer jaunak, Erriberako Mankomunitateko lehendakariak, eskatu du SGAErekin egindakoen inguruko informazioa helarazteko eta gogoratu du animaliak babesteari buruzko lantaldearen bilera eskatu behar dela.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hamalauak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.